

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak

OSASUN SAILA

2053

170/1993 DEKRETUA, ekainaren 15ekoa, Minbiziari buruzko Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea eratzeko dena.

Sistema Vasco de Salud-Osasuna Zainduz delakoaren Plan Estrategikoan ikus daitekeenez, tumorretatik datozen gaisotasunak benetako arazo larriak dira gaur egun gure Autonomi Elkartean, dauden hilkortasun eta gaisotze tasa handiak eta ondorioz, horrek dakarren giza eta osasun mailako gastuak kontutan hartuz gero.

Hori dela eta, gaisotasun honek dakarren osasun mailako arazoan eragin eraginkorra lortzeko xedez, behar-beharrezkoa da, koordinatuki neurriak hartzea, hain zuzen ere, gaitzari aurea hartzeko neurriak eta hezkuntza, informazio, sorospen eta errehabilitazio mailako neurriak.

Zorionez, gure Elkarte Autonomoan badira Baltzu Zientifikoak, Entitateak eta Elkarteak, patologia horren aurka aritzea xedetzat dutenak.

Ondorioz, baltzu, entitate eta elkarte horien ahaleginak batzeko eta sustatzeko elkarlankidetzat bat antolatu, lehenetasuna duten neurriak eta egitekoak definitu, guztientzako interesekoak diren informazioak hedatu eta osasun mailako baliabideak hobetzen eta probetxatzen lagundu nahi da.

Hori horrela, Osasun Sailburuaren proposamenez, Medikuen Kolegio Ofizialei eta Euskal Autonomi Elkarteko Osasun Laguntzaile Teknikoen eta Erizaintzako Diplomatuena Elkarte Ofizialei, Asociación Española de la Lucha contra el Cáncer delakoari eta arazo honekin zerikusirik duten elkarte zientifikoei hitza eman ondoren, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1993ko ekainaren 15ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

1. atala.- Minbiziari buruzko Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea sortzea, Osasun Sailari atxikita egongo dena eta minbiziari aurea hartzeko eta minbizia kontrolatzeko laguntza teknikoa emango duena.

2. atala.- 1.- Kontseilu Aholkuemaile honek Euskal Elkarte Autonomoan minbiziari aurea hartzeko eta minbizia kontrolatzeko Osoko Plan bat eratzeko xede nagusitzat, gero, Osasun Saileko organu kudeatzaileek onartu beharko dutena.

2.- Minbiziari aurea hartzeko eta minbizia kontrolatzeko Osoko Plana onartu ondoren, Kontseilu Aholkuemaileak planaren jarraipenari eta ebaluaketari buruzko egitekoak hartuko ditu bere gain.

Disposiciones Generales del País Vasco

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

2053

DECRETO 170/1993, de 15 de junio, por el que se crea el Consejo Asesor sobre el Cáncer en Euskadi.

Las enfermedades de origen tumoral, según se desprende del Plan Estratégico del Sistema Vasco de Salud-Osasuna Zainduz, constituyen, hoy día, una grave problema en nuestra Comunidad Autónoma por sus altas tasas de morbilidad y mortalidad y el consiguiente costo socio-sanitario que ello implica.

Ante este hecho, es necesario adoptar, de forma coordinada, medidas preventivas, educativas e informativas, asistenciales y rehabilitadoras con el fin de incidir eficazmente en la problemática sanitaria que genera esta enfermedad.

Afortunadamente, en nuestra Comunidad Autónoma, existen Sociedades científicas, Entidades y Asociaciones que tienen como objetivo la lucha contra esta patología.

En consecuencia, se trata, de establecer una forma organizada de colaboración que permita fomentar y aunar los esfuerzos de dichas Sociedades, Entidades y Asociaciones, de definir medidas y tareas prioritarias, de difundir informaciones de interés común y cooperar en el aprovechamiento y optimización de todos los recursos sanitarios.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Sanidad, oídos los Colegios Oficiales de Médicos y de Ayudantes Técnicos Sanitarios y Diplomados en Enfermería del País Vasco así como las asociaciones de afectados, Asociación Española de la Lucha contra el Cáncer y asociaciones científicas relacionadas con esta problemática, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 15 de junio de 1993,

DISPONGO:

Artículo 1.- Se crea el Consejo Asesor sobre el Cáncer en Euskadi, como órgano consultivo adscrito al Departamento de Sanidad para el asesoramiento técnico sobre la prevención y control del cáncer.

Artículo 2.- 1.- Este Consejo Asesor tiene como misión principal la elaboración de un Plan Integral de Prevención y Control de Cáncer en Euskadi, para su posterior aprobación por los órganos directivos del Departamento de Sanidad.

2.- Una vez aprobado el Plan Integral de Prevención y Control del Cáncer, el Comité Asesor asumirá las funciones relativas a su seguimiento y evaluación.

3.- Zeregin hauek ere izango ditu:

a) Minbiziari buruzko oinarrizko aurrehartzea eta osasun mailako hezkuntza gaitan lehenetsua duten planen norabide eta ekintzei buruz informazioa eman eta laguntzea.

b) Maila guztietan (oinarrizko sorospena, hospitalizazio mailan, paliatibo mailan) gaisorik dauden pertsonen diagnostiko goiztarrari buruz eta osasun sorospenerekin zerikusia duten alderdi guztiei buruz informazioa ematea eta laguntzea.

c) Gaisotasun honen ondorioengatik eraginpean dauden artean ahaleginak, laguntzak eta esperientziak batzea eta elkartzea bultzatzeko iharduketetan proposamenak egitea, laguntzea eta lankidetzan aritzea.

d) Osasun arloko profesionalak onkologian prestakuntza egokia izan dezaten laguntzea eta lankidetzan aritzea.

e) Minbiziari aurre hartzeko eta minbizia kontrolatzeko osasun mailako programak eta zerbitzuak benetakoak eta eraginkorrak diren ikertzeko eta ebaluatzeko proiektuetan proposamenak egin, laguntza eman eta, behar izanez gero, lankidetzan aritzea.

3. atala.- 1.- Minbiziari buruzko Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea, Lehendakari batek, Koordinatzaile batek eta, gehienez ere, 18 bokalek, osatuko dute, eta Osasun Sailburuak izendatuko ditu bi urterako eta berriz ere aukeratu ahal izango dira.

2.- Minbiziari aurre hartzeko eta minbizia kontrolatzeko eremuan, ekintzak egiten dituzten eraginpekoen, profesionalen elkarte eta entitate publiko eta pribatuaren artean, bokalak banatzea eta kide kopurua zehaztea Osasun Sailburuaren ardura izango da.

3.- Kontseilu Aholkuemaileak hala eritzita, estatu edo nazioarte mailan gai horretan gaitasun ezaguna duten pertsonen, bileretara joan ahal izango dute eta ekintzak egiterakoan lankidetzan aritu ahal izango dute.

4. atala.- Minbiziari buruzko Euskadiko Kontseilu Aholkuemailea, gutxienez, bi urtean behin bildu beharko da, eta urtero txosten bat egin beharko du ekintzak eta Euskadin minbiziari buruzko ebaluaketa jasoko dituen.

5. atala.- 1.- Koordinatzaileak, Idazkariaren egiteko gain, Kontseiluaren akordioak bultzatu eta burutu beharko ditu, bai eta sor daitezen komisio nahiz lantaldeak koordinatu ere.

2.- Ekintzak egiterakoan, Koordinatzaileak Osakidetza eta Osasun Saileko teknikari baten eta administrazioaren laguntza izango du.

6. atala.- 1.- Lanak burutzea errezagoa izan dadin, Kontseiluak Idazkaritza Tekniko bat sortuko du bere barnean, planak, programak eta proposamenak egin eta idatz ditzan. Gero, Kontseilu Aholkuemailearen osoko bilkurak onartu beharko ditu.

2.- Idazkaritza Teknikoa, koordinatzaileak eta, gehienez ere, hiru kidek osatuko dute, eta Batzorde Aholkuemaileak izendatuko ditu.

3.- Además, desempeñará las siguientes funciones:

a) Informar y asesorar sobre las líneas y planes de acción prioritarios en materia de prevención primaria y educación sanitaria sobre el cancer.

b) Informar y asesorar sobre todos los aspectos relacionados con el diagnóstico precoz y la asistencia sanitaria a las personas afectadas a todos los niveles (asistencia primaria, hospitalaria, paliativa, etc.)

c) Proponer, asesorar y colaborar en las actuaciones destinadas a fomentar el asociacionismo y la conjunción de esfuerzos, ayudas y experiencias entre los afectados por las consecuencias de dicha enfermedad.

d) Asesorar y colaborar en la formación adecuada de los profesionales sanitarios en oncología.

e) Proponer, asesorar y, en su caso, colaborar en proyectos de investigación y evaluación de la efectividad y eficiencia de los programas y servicios sanitarios destinados a la prevención y control del cáncer.

Artículo 3.- 1.- El Consejo Asesor sobre el Cáncer en Euskadi estará formado por un Presidente, un Coordinador y un máximo de 18 vocales, designados por el Consejero de Sanidad por un periodo de 2 años, pudiendo ser reelegidos.

2.- Así mismo, corresponderá al Consejero de Sanidad determinar el número de miembros y la distribución de vocalías entre las Asociaciones de afectados, de profesionales y entidades públicas y privadas que desarrollen sus actividades en el ámbito de la prevención y tratamiento del cáncer.

3.- A criterio del Consejo Asesor, podrán acudir a las reuniones y colaborar en el desarrollo de sus actividades aquellas personas de reconocida competencia nacional o internacional en el tema a tratar.

Artículo 4.- El Consejo Asesor sobre el Cáncer en Euskadi se reunirá con una frecuencia, al menos, bianual y elaborará una memoria anual comprensiva tanto de sus actividades como de la evaluación del cáncer en Euskadi.

Artículo 5.- 1.- Al Coordinador, además de las funciones de Secretario, le corresponderá el impulso y ejecución de los acuerdos del Consejo, así como la coordinación de las comisiones o grupos de trabajo que se creen.

2.- En el desarrollo de sus funciones, el Coordinador estará asistido por un técnico y soporte administrativo del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza y Departamento de Sanidad.

Artículo 6.- 1.- Con objeto de facilitar el cumplimiento de sus labores, el Consejo creará en su seno una Secretaria Técnica encargada de la elaboración y redacción de los planes, programas y demás propuestas para su posterior aprobación en el pleno del Consejo Asesor.

2.- La Secretaria Técnica estará compuesta por el Coordinador y un máximo de 3 miembros, designados por el propio Consejo Asesor.

7. *atala.*– 1.– Egitekoak betetzeko, Idazkaritza Teknikoak egokitzen jotzen dituen adina lantalde sortu ahal izango ditu, ekintzak egingo direneko lehentasunezko eremuak, Osasun Sailak zehaztutakoak, kontutan hartuz.

2.– Kontseilu Aholkuemailearen kideez gain, kasuan kasuko gaiean gaitasun ezaguna duten pertsonak ere laguntzerik izango dute lantaldeetan, haien laguntza eta lanak interesgarritzat jotzen badira.

3.– Laguntzailearen izendapena Kontseilu Aholkuemailearen Lehendakariak egingo du, Idazkaritza Teknikoak proposatuta.

8. *atala.*– Kontseilu Aholkuemailearen kideek nahiz laguntzaileek ez dute ezelako soldatarik jasoko, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuaren indarrez, Batzorde Aholkuemaileko, Idazkaritza Teknikoko eta lantaldeetako kideek eta laguntzaileek izan ditzaketan dieta zein diru laguntzen kaltetan gabe.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Kontseilu Aholkuemailea sortzen denetik hasita sei hilabeteko epean, Kontseiluak minbiziari aurrea hartzeko eta hura kontrolatzeko osoko plana aurkeztuko die Osasun Saileko organo kudeatzaileei.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Dekretu honetan aurreikusten ez den guztirako, Herri Administrazioen Lege-Jaurbideari eta guztientzako administrazio ihardunbideari buruz azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa izango da aplikagarri.

Bigarrena.– Osasun Sailburuari ahalmena ematen zaio dekretu honetan xedatutakoa garatu eta burutzeko behar diren neurriak hartzeko.

Hirugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1993ko ekainak 15.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Osasun Sailburua,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.

Artículo 7.– 1.– Para el desarrollo de sus funciones, la Secretaría Técnica podrá constituir cuantos grupos de trabajo estime adecuados, de acuerdo con las áreas de actuación preferente determinadas por el Departamento de Sanidad.

2.– Además de los miembros del Consejo Asesor, podrá colaborar en los grupos de trabajo cualquier otra persona de reconocida competencia en el tema a tratar, cuyas aportaciones y trabajos sean considerados de interés.

3.– La designación como Colaborador se realizará por el Presidente del Consejo Asesor, a propuesta de la Secretaría Técnica.

Artículo 8.– Sin perjuicio de las dietas o compensaciones económicas que conforme al Decreto 16/1993, de 2 de febrero, les puedan corresponder, los miembros y colaboradores del Consejo Asesor, Secretaría Técnica y Grupos de Trabajo no percibirán retribución alguna por su pertenencia o colaboración con el Consejo Asesor.

DISPOSICION ADICIONAL

En el plazo de 6 meses, a partir de su constitución, el Consejo Asesor presentará a los órganos directivos del Departamento de Sanidad una propuesta de Plan Integral de Prevención y Control del Cáncer.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En todo lo no previsto en este Decreto, será de aplicación lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.– Se faculta al Consejero de Sanidad para dictar las medidas precisas para el desarrollo y ejecución de lo dispuesto en este Decreto.

Tercera.– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de junio de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Sanidad,
JOSE IGNACIO AZKUNA URRETA.